GENERO-BERDINTASUNA NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAN

UDALETAKO BERDINTASUN ALORRETAKO LANA PLANIFIKATU, KUDEATU ETA EBALUATZEKO IBILBIDEA ERAGINKORTASUNEZ KOMUNIKATZEKO PLANA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroako Berdintasunerako Institutua
Instituto Navarro para la Igualdad

Izenburua: "Genero-berdintasuna Nafarroako Toki Entitateetan. Udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea eraginkortasunez komunikatzeko plana"

Egilea: Sara Ibarrola Inchusta

Argitaratzailea: Instituto Navarro para la Igualdad/Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Avd. Carlos III nº 36, 2º Pamplona/Karlos III.a etorb., 36, 2.a, Iruña

Urtea: 2016ko apirila

PROIEKTUAREN SUSTAPENA ETA KOORDINAZIOA

NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA/INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD

Mª Jesús Gutiérrez Álvarez. Subdirectora de Planificación y Programas/ Plangintzaren eta Programen zuzendariordea

Cristina García Ustárroz. Sección de Programas y Transversalidad de Género/ Programen eta Genero Zeharkakotasunaren Atala

EGILEA

Sara Ibarrola Inchusta

PROIEKTUKO LANKIDEAK

NAFARROAKO TOKI ENTITATEETAKO ETA BESTE ENTITATE PUBLIKO BATZUETAKO BERDINTASUNEKO AGENTEAK

Laura Lorente Mesa. Ablitasko eta Ribaforadako Udalak

Idoia Goikoetxea Gómez. Altsasuko Udala

Eva Isturiz García. Antsoaingo Udala

Oihana Gallo San Román. Baztango Udala

Amaia Zalba Martínez. Berriozarko Udala

Ana Carmen Senosiáin Echarte. Burlatako Udala

Mª José Aranguren Lizasoáin. Cintruenigoko Udala

Maite López Morentin. Lizarrako Udala

Imelda Mañeru Viguria. Tafallako Udala

Mª Ángeles García Briñol. Tuterako Udala

Irune Gastón Ripa. Atarrabiako Udala

Josune Irigoyen García. Zizur Nagusiko Udala

Iruña Martínez Lorea. Zizur Nagusiko Udala

Ana Elcano Sesma. Erdialdea Garatzeko Partzuergoa

Begoña Laquidain Azpiroz. Noaingo Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea

Josune Antxo Adot. Ultzama Aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Idoia Aránaz Hernández. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Jaione Iraola Rozas. Eguesibarko Udala

Patricia Alfaro Oscáriz. Kazetaritzako bekaduna. Nafarroako Berdintasunerako Institutua

AURKIBIDEA

1] AURKEZPENA....3

2] ZERGATIK IBILBIDEA ERAGINKORTASUNEZ KOMUNIKATZEKO PLAN BAT? XEDEA....4

3] NORI KOMUNIKATU? INTERES TALDEAK....4

4] ZER KOMUNIKATU? MEZUA PLANIFIKATZEA ETA DISEINATZEA....5

5] NOLA KOMUNIKATU? PROPOSATURIKO EKINTZAK....6

5.1. ADIERAZLE SISTEMA BATEN BIDEZ LAN EGITEA, DATUETAN ETA INFORMAZIO ESTATISTIKO SISTEMATIZATU ETA EGUNERATUAN OINARRITURIK KOMUNIKATU AHAL IZATEKO....7
ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA....8
ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA....9
ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA....9
ESKU HARTZEKO 2. ARLOA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA....10
ESKU HARTZEKO 3. ARLOA: ZAINTZA, ERANTZUNKIDETASUNA, ETA EGINKIZUNAK BATERATZEA....10
ESKU HARTZEKO 4. ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZEA....11
5.2. HEDABIDEEKIN ERAGINKORTASUNEZ LAN EGITEA....11
5.2.1. NOLA IRITSI HEDABIDEENGANA? MODU KLASIKOAK....12
5.2.2. HEDABIDEETARA IRISTEKO ETA OIHARTZUN HANDIA LORTZEKO BESTE MODU BATZUK: ELKARRIZKETAK ETA SARE SOZIALAK....13
5.3. WEBGUNEA, INTRANETA ETA SARE SOZIALAK AKTIBOKI ERABILTZEA....15
5.4. BERDINTASUN ALORRAREN KOMUNIKAZIO PROZESUETAN KALITATEA TXERTATZEA....18

6] KOMUNIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA....22
KOMUNIKAZIOAREN ADIERAZLEAK....22

7] ETA HEMENDIK AITZINA?....22

1. ERANSKINA. ADIERAZLEEN IDENTIFIKAZIOA ETA JARRAIPENA....23
ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA....23
ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA....25
ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA....27
ESKU HARTZEKO 2. ARLOA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA....29
ESKU HARTZEKO 3. ARLOA: ZAINTZA, ERANTZUNKIDETASUNA, ETA EGINKIZUNAK BATERATZEA....33
ESKU HARTZEKO 4. ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA BALIOEN ALDAKETA....36
KOMUNIKAZIOAREN ADIERAZLEAK....39

2. ERANSKINA _ Siglak eta laburdurak....41

1] AURKEZPENA

Ondoko orrialdeetan, Nafarroako Toki Entitateetako berdintasun alorrek egiten duten lana hobetzen eta ikusarazten lagun dezaketen komunikazio alderdietan sakondu nahi dugu, kalitate estandarretatik abiaturik, tokiko berdintasun politiken kudeaketako bikaintasun prozesu baten parte direla ulerturik. Prozesu hori ez da puntuala, aitzitik, aspalditik ari da garatzen eta inflexio puntu bat izan du: Udaletako Berdintasun Alorretako Lana Planifikatu, Kudeatu eta Ebaluatzeko Nafarroako Gobernuaren Ibilbidea (aurrerantzean Ibilbidea), Nafarroako Gobernuak Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez 2014. urtean bultzatu eta prestatu zuena.

Testuinguru horretatik abiatuta, aurkezten dugun agiri hau Ibilbidea garatzeko lan tresna bat da, helburu baitu proposamenak egitea, bai gai desberdinei bai Ibilbidea aurkezteko moduari erreparatuz, Ibilbidearen edukiak komunikatzeko Nafarroako udalerrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak antolatzen eta abiarazten esku hartzen duten askotariko interes taldeei, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasun eraginkorra lortzeko. Zentzu horretan, agiri honek izaera pedagogikoa du, komunikazioa kudeatzea ez delako komunikatzea bakarrik, baizik eta batez ere berdintasun gaietako informazioa ematea eta jendea sentsibilizatzea, hala barne mailan, erakundean, nola kanpoan, gizarte osoan.

Zergatik deitu diogu "Plan" lan tresna honi? Bada, Ibilbidearen edukiak eta udaletako berdintasun alorretatik egiten den lana publiko desberdinei erarik egokienean iristeko ekintza multzo bat biltzen duelako. Ekintza horiek guztiak proposatu ditugu uste dugulako komunikazioa ezin dela inprobisatu, aitzitik, ezinbestekoa dela planifikatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea, eta lan hori udaletako berdintasun alorretako edukietan txertatu behar dela.

Azkenik, nabarmentzekoa da aurkezten dugun informazioak balio erantsi garrantzitsua duela. Izan ere, ezagutza ere eraginkortasunez kudeatu behar delako premisatik abiatuta, prestakuntza eta lan prozesu baten sistematizazioan oinarrituta prestatu da. Lan horretan Nafarroako erakunde publikoek kontratatutako berdintasuneko agenteek eta profesionalek parte hartu dute, eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bultzada eta finantzaketa izan da.

Mertxe Leránoz Goñi

Directora Gerente del Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Zuzendari Kudeatzailea

2] ZERGATIK IBILBIDEA ERAGINKORTASUNEZ KOMUNIKATZEKO PLAN BAT? XEDEA

Komunikazioa ez da udaletako berdintasun alorretako lanetik kanpo dagoen errealitate bat. Haietan, beren jardunbidean zehar, komunikazio ekintza asko burutu izan dira, sarritan oso berritzaileak, komunikazioa bultzaturiko jarduerei buruzko informazioa zabaltzeko tresna ez ezik sentsibilizatzeko bidea ere baita, funtsezkoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko behar den balio aldaketa gerta dadin. Hala ere, oro har, burutzen den komunikazioa planifikatu gabea eta ia egituratu gabea izaten da; ezaugarri hauek izan ohi ditu:

Lehena, ez dela egiten komunikazio ekintzen eraginaren jarraipena, ez dela aztertzen erabilitako bide eta kanalak egokienak ote diren interes talde desberdinei helarazi nahi zaizkien mezuetarako, eta mezu horiek ez daudela segmentatuta.

Bigarrena, berdintasun alorretatik egiten den lanaren zati bat ez dela ezagutzen eta, gainera, lan hori burutzeak erresistentziak sortzen dituela pertsona talde batzuetan.

Hirugarrena, berdintasun alorretako lanaren edukiek era askotako komunikazio elementu ugari ekartzen dituztela berekin, baina beti ez zaiela etekina ateratzen, besteak beste, helarazi nahi den informazioa ez dagoelako sistematizatuta.

Laugarrena, udaletako berdintasun alorren dinamikagatik beragatik eta duten egituragatik, pertsona bakarrekoa izan ohi delako, ez direla izaten nahikoa denbora eta diru komunikazioa planifikatzeko, horrela eragin handiagoa eta egokiagoa lortuko lukeen arren.

Ibilbidea etapa baten hasiera da, aurrerantzean kalitateko eta etengabeko hobekuntzako estandarretatik abiatuta lan egiteko, eduki egituratu eta komunekin, baina toki entitate bakoitzak bere lehentasunen, jardunbidearen eta errealitatearen arabera zehazturik. Horregatik, Ibilbidea bera eta ezarriko den lan esparru berria aukera paregabea dira, lehen azaldutako ezaugarrietatik abiatua, hobekuntza arloak direla ulertuta, alderdi horiek landuko dituen komunikazio estrategia bat ezartzeko eta, azken finean, udaletako berdintasun alorretatik egiten den lanari zilegitasuna, ikusgarritasuna eta autoritatea ematen laguntzeko.

Udaletako Berdintasun Alorretako Lana Planifikatu, Kudeatu eta Ebaluatzeko Ibilbidea esku hartzeko lau arlotan dago egituratuta: "Toki gobernamendua eta genero-zeharkakotasuna", "Emakumeen kontrako indarkeria", "Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea" eta "Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa". Era berean, arlo horietako bakoitzak baditu ildo estrategikoak, eta horiekin loturiko programak, jarduerak eta adierazleak, eta horrela, toki entitate bakoitzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gainean lantzen dituen edukiak zehaztuz doaz, gero eta gehiago, sekuentzia edo bide logiko batean. Hortik dator Ibilbide izena.

3] NORI KOMUNIKATU? INTERES TALDEAK

Ibilbidearen esparruan, udaletako berdintasun alorretatik egiten den lanak interes talde desberdinekin harremanak izatea dakar, eta interes talde bakoitzarekiko komunikazio estrategia haien berariazko rol, interes eta premiei egokitu behar zaie.

Zer interes talderi edo pertsonari komunikatu behar zaie Ibilbidea? Ibilbideak interes talde desberdinekin egiten du lan. Hartara, beren interes komunen arabera antolatuta dauden pertsona horiei guztiei komunikatu behar zaie Ibilbidea. Ondoko taula honetan bilduta daude, xeheki.

INTERES TALDEEN IDENTIFIKAZIOA	DESKRIBAPENA
UDALEKO ARDURADUN POLITIKOAK	Alkatea Zinegotziak Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta batzordeak Berdintasun Batzordea
UDALEKO TEKNIKARIAK	Zuzendaritzako langileak, arloetako arduradunak, bereziki kontu-hartzailetzakoak, idazkaritzakoak eta giza baliabideetakoak
	Udaleko arlo desberdinetako teknikariak
	Udaleko beste langile batzuk
EMAKUMEEN MUGIMENDU, TALDE ETA ELKARTEAK	Emakumeen elkarteak Talde eta elkarte feministak Tokiko Berdintasunerako Kontseilua
HERRITARRAK ETA ANTOLATUTAKO HERRITARRAK	Herrian bizi diren emakumeak eta gizonak Plataformetan, foroetan eta abarretan antolatutako emakumeen eta gizonen mugimenduak
ERAKUNDE ETA ERAGILE SOZIAL ETA EKONOMIKOAK	Landa garapeneko partzuergoak / Tokiko ekintza taldeak Enpresak Sindikatuak, enpresa elkarteak, askotariko erakunde eta eragileak
ERAKUNDE PUBLIKOAK	Nafarroako Berdintasunerako Institutua Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuk Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa Toki Entitateak
HEDABIDEAK	Telebistak, irratiak, prentsa idatzia, prentsa digitala, etab.
BESTE BATZUK	Proiektu zehatzen arabera sortutako interes taldeak

Berdintasun alorrak zer interes talderekin izanen dituen harremanak identifikatuta, monolitikoa ez den komunikazio estrategia bat diseina daiteke, talde bakoitzaren behar eta itxaropen berezien arabera egokituko dituena mezu desberdinak, haien edukiak, erabilitako tonua, hizkuntza eta komunikazio kanalak (Facebook, erakusketak, elkarretaratzeak, memoriak, filmak, kartelak edo prentsa oharrak, adibidez).

4] ZER KOMUNIKATU? MEZUA PLANIFIKATZEA ETA DISEINATZEA

Udal baten berdintasun alorraren eginkizuna tokiko berdintasun politikak garatzea da, bizitzaren arlo guztietan, publikoetan zein pribatuetan, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria eta bereizkeriekin amaitzeko. Beraz, alorretik bultzatzen diren mezu guztiek bat etorri behar dute eginkizun horrekin, eta interes talde guztiendako ulergarriak izateko eta denei eraginkortasunez iristeko moduan adierazi behar dira.

Mezu batek ez du balio interes talde guztiekin komunikatzeko, azkenean helburua bera izan arren. Horregatik, mezuak planifikatu eta diseinatu egin behar dira, mezuak eta dagozkien interes taldeak zein diren, komunikatzeko tresna eta kanal jakin batzuk aukeratu behar direlako.

Ibilbidea komunikatzea

Gainera, komunikazio plan honekin berdintasun alorrak bultzatzen dituen ekintza guztiak Ibilbidearen inguruan lotu eta antolatu nahi direnez, zabaldu beharreko funtsezko mezuetako bat da adostutako esparru komun bat dagoela Nafarroako berdintasun alor guztien lanerako eta tokiko berdintasun politikak bultzatzeko: malgua, etengabeko hobekuntzako eta kalitateko irizpideetatik abiatutako kudeaketan oinarritua, lana egituratzeko eta aholkua emateko balio duena, eta lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiten laguntzen duena. Ikuspegi berri honek alorraren lana ikusgai egiten du, eta haren balioa nabarmentzen, aukera ematen du interes talde guztien itxaropenak asetzeko, baita horiez harago joateko ere, eta, horrela, toki entitateak erakunde bikain bihurtuko dituzten elementuak txertatzen ditu. Mezua argia izanik ere, batez ere berdintasun gaietako maila tekniko eta espezializaturako, berdin komunika dakieke interes talde guztiei? Testu hauxe barnean duen notiziarik argitaratuko luke hedabide batek? Ibilbideak, bere edukia ezagutu gabe, ematen du informaziorik?

Tokiko berdintasun politikak garatzeko etapa berri baten hasiera komunikatzeko proposamenak
1. Identifikatzea zer **interes talderi** helarazi nahi zaien mezua eta zer helburu zehatzekin. 2. **Funtsezko mezu** bat prestatzea, interes talde desberdinak "erakartzeko", haiekin aliantzak egin ahal izateko. Mezu horretan oinarrituta diseinatuko dira abiatuko diren jardueren edukiak. 3. Mezua hedatzeko **unea** erabakitzea. 4. Mezua eragikortasunez helarazteko erabiliko den **komunikazio kanala** aukeratzea. 5. Behar diren **baliabideak** kontuan izatea. 6. Interes talde desberdinekin burututako ekintzen eraginaren **jarraipena eta ebaluzioa** egitea.
Jarduera baten adibidea
Interes taldea: Arduradun politikoak. **Xedea**: Baldintza egokiak sortzea, udaletako berdintasun arloen lanaren balioa nabarmentzeko eta tokiko berdintasun politikak Ibilbidearen inguruan egituratzeko. **Mezua**: 20 urte abangoardian lanean: tokiko berdintasun politiken desafio eta erronkak Nafarroan. **Unea**: Legegintzaldi hasiera. **Komunikazio kanala**: Baterako prestakuntza jarduera (jardunaldia) udaleko arduradun politikoei zuzenduta. Besteak beste, toki entitate desberdinen esperientziaren berri emanen da. Saioa eginen da Nafarroako Gobernuaren bultzada eta presentziarekin, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez, eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren lankidetzarekin; funtsezko faktoreak dira mezuak eragina lortzeko. **Baliabideak**: Aurrekontua, jarduera egiteko toki aproposa, etab. **Jarraipena eta ebaluazioa**: Baloratuko dira parte-hartzaile kopurua, jarduerak hedabideetan izandako presentzia, tokiko berdintasun politikak Ibilbidearen inguruan egituratzeari dagokionez lansaioak izandako eragina, etab.

5] NOLA KOMUNIKATU? PROPOSATURIKO EKINTZAK

Atal honetan ekintza desberdinak zehazten dira, Ibilbidearen bidez komunikazioaren kalitatea eta eragina hobetzeko. Gomendio orokorrak ematen dira proposaturiko ekintza bakoitzerako, Ibilbidearen jarraipeneko eta ebaluazioko adierazleetarako izan ezik, duten eraginagatik xeheago aurkezten eta azaltzen direlako, I. eranskinean.

5.1. ADIERAZLE SISTEMA BATEN BIDEZ LAN EGITEA, DATUETAN ETA INFORMAZIO ESTATISTIKO SISTEMATIZATU ETA EGUNERATUAN OINARRITURIK KOMUNIKATU AHAL IZATEKO

Ohikoa da ez izatea Ibilbideko lau eragin arloetarako informazio sistematizatua eta sexuaren arabera banatua, egoki denean, eta horrek kalte egiten dio komunikazioaren kalitateari eta munta kentzen udaletako berdintasun alorretatik egiten den lanari. Esaterako, herriko gazteak emakumeen kontrako indarkeriari buruz sentsibilizatzeko egindako bideo batek izan duen eragina arduradun politikoei azaltzen zaienean, desberdina da besterik gabe harrera handia izan duela esatea, edota esatea harrera handia izan duela Facebooken 8.200 *"atsegin dut"* jaso dituelako.

Datuak, informazio sistematizatua eta luzetarako analisiak izanik, autoritate handiagoa ematen zaio mezuari eta, orobat, tokiko berdintasun politiken eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin daiteke. Horrela, epe jakin baterako, berdintasun alorraren plangintza estrategikoaren arabera egokitu daiteke komunikazioa.

Ildo honetan lan egiteko, Komunikazio Planeko ekintza honek adierazle sistema bat proposatzen du Ibilbidearen lau esku-hartze arloetako bakoitzerako: "Toki gobernamendua eta genero-zeharkakotasuna", "Emakumeen kontrako indarkeria", "Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea" eta "Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa". Aurkezpenari dagokionez, adierazle kuantitatibo eta kualitatibo hauek honela daude egituratuta:

Adierazlearen identifikazioa

Ibilbidearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle garrantzitsuenen zerrenda aurkezten da, esku-hartze arloaren, ildo estrategikoaren eta programaren arabera egituratuta. Gainera, berdintasun alorretik martxan jartzen diren komunikazio ekintzen jarraipena egiteko adierazleen zerrenda biltzen da.

Adierazle mota

Agertzen da adierazlea orokorra den edo berdintasun alorrerako estrategikoa den, gomendagarria delako berdintasun alorrak estrategikotzat jo dituen adierazleen informazioa jasota izatea, gutxienez urtean behin.

Iturria eta agente arduraduna

Eragile bakoitzerako ezartzen da zer iturritatik etorriko den informazioa eta zer pertsonak duen informazio hori emateko ardura.

Aldizkakotasuna

Identifikatutako adierazle bakoitzak aldizkakotasun bat du ezarrita. Gehienak urtean behingoak diren arren, beste batzuk, ematen duten informazio motagatik, bi urtez behingoak edota lau urtez behingoak ere izan daitezke.

Informazioa biltzeko metodoa

Informazioa homogeneoki aurkeztu ahal izateko eta sistematizatzen errazagoa izan dadin, adierazle bakoitzerako informazioa biltzeko metodoa zein den agertzen da.

Plangintza: adierazle bakoitzaren abiapuntua eta finkatutako helburuak

Lanaren ebaluazioa eta jarraipena adierazleen bidez egiteak ez du zentzurik ez bada hasierako egoera batetik abiatzen, hots, abiapuntutik, eta ez bada planifikatzen noraino iritsi nahi den. Zentzu horretan, eta I. eranskinean agertzen den bezalaxe, erreferentziako balio gisa 2015. urtea hartu da eta 2019. urtea ezarri da helmuga urte gisa. Beraz, berdintasun alor bakoitzak

2019rako lortu nahi dituen helburuak ezarri beharko ditu, 2015eko egoerari dagozkion datuak emanen ditu eta, gero, urtero jasoko du (2016, 2017, 2018 eta 2019rako) lantzen ari den adierazleen informazioa.

Udaletako berdintasun alor gehienek jardunbide luzea duten arren, 2015a baino askoz lehenagokoa, urte hori hautatu da erreferentzia gisa Ibilbidea orduan jarri zelako martxan eta ezarritako adierazle guztiek lanerako esparru horrekin dutelako zerikusia.

Adierazle sistema malgua, hobekuntzak egiteko tartea duena.

Zergatik aurkezten dira adierazle hauek eta ez beste batzuk? Oinarrizko premisatzat ulerturik adierazle sistema batek erabilgarria izan behar duela eta ezin dela estatikoa izan, adierazle zerrenda honek udaletako berdintasun alorren errealitateari erantzuten dio, aukeratutako plangintza eperako (2016-2019). Jakina, berdintasun alor bakoitzak eginen duen lanari buruzko informazioa eskaintzen duten adierazleak soilik betetzeko dago pentsatuta, berdintasun alor bakoitzak garrantzitsutzat dituen beste adierazle batzuk gehitu ahal ditzan eta, 2019tik aurrera, adierazle sistema hau berriz formulatu eta beste adierazle batzuekin osatu dadin, une horretan (hau da, 2019an) hasiko den egoera berriaren informazioa eman dezaten.

Jarraian Ibilbidearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleen zerrenda agertzen da, esku-hartze arlo bakoitzerako, komunikazioari buruzko adierazleak izan ezik, kasuan kasuko adierazle mota (estrategikoa ala orokorra) adieraziz. Adierazle kopurua aldatu egiten da arlo batetik bestera, arloek pisu desberdina dutelako Ibilbidean. Agiri honen bukaeran, I. eranskinaren barruan, adierazle guztiak agertzen dira, lehen aipatutako irizpideei segituz.

ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ADIERAZLE MOTA
1. Badagoen berdintasunerako udal alor berariazko bat	Estrategikoa
2. Udalaren berdintasun alorra osatzen duen jende kopurua, sexua adierazita, baita zer maila eta kontratu mota dituzten eta plantilla organikoan sartuta dauden ere	Orokorra
3. Badagoen Alorren arteko Koordinazio Mahai bat	Estrategikoa
4. Badagoen barneko prestakuntza plan bat	Orokorra
5. Prestakuntza jasotzen duen jende kopurua, sexua, ardura maila eta prestakuntza-ekintza mota adierazita	Orokorra
6. Udaleko arduradun politiko eta teknikariek egindako prestakuntza orduak, prestakuntza-ekintza mota adierazita	Orokorra
7. Badauden genero-eraginari buruzko ebaluazioak egiteko jarraibideak edo prozedura bat	Orokorra
8. Udalaren zenbat plan eta arauk duten genero-eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioa, udal prozeduraren arabera	Estrategikoa

ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOA
9. Berdintasun alorraren urteko aurrekontuari dagokion ehunekoa, udalaren urteko aurrekontu osotik	Estrategikoa
10. Berdintasun alorraren urteko aurrekontuaren bilakaera, ehunekotan, Ibilbideko esku-hartze arloen arabera banatuta	Estrategikoa
11. Badagoen udal plantillaren sexuaren araberako bilakaera aztertzen duen txosten bat	Orokorra
12. Zenbat ekintza eta zer motatakoak sustatu diren genero-desberdinkeria eta bereizkeriako egoerak zuzentzeko udal plantillan	Orokorra
13. Zenbat barne-jarraibide eta zer motatakoak dauden hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko	Orokorra
14. Udalaren webgunean badagoen atal bat udalaren berdintasun alorretik egiten den lana ikusgai egiteko	Estrategikoa
15. Udal prozedura bat dagoen kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan genero-baldintzak txertatzeko	Orokorra
16. Zenbat genero-baldintza eta zer motatakoak txertatu diren diru-laguntza eta hitzarmenetan	Orokorra

ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOA
17. Irizpiderik badagoen emakumeen eta gizonen presentzia orekatua errazteko TEko izaera egonkorreko batzorde, tribunal edo epaimahaietan	Orokorra
18. Toki entitateak parte hartzen ote duen tokiko garapen iraunkorra genero-ikuspegia txertaturik helburu duten mekanismo edo egituretan. 19. Mekanismo edo egitura motak	Orokorra
20. TEko zenbat arduradun politiko eta teknikarik, sexuaren arabera bereizita, hartu duten parte genero-ikuspegia duen tokiko garapen iraunkorrari buruzko prestakuntza ekintzetan.	Orokorra
21. Lurraldearen tokiko garapen iraunkorrerako garrantzizko zenbat proiektu, plan eta/edo jarduera dauden, eta zer motatakoak, genero-eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioarekin	Orokorra
22. Zenbat proiektu eta zer motatakoak sustatu diren udalerrian edo lurraldean, genero-desberdinkeria edo bereizkeriako berariazko egoerak zuzentzeko.	Orokorra

ESKU HARTZEKO 2. ARLOA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOA
1. Udal protokolo bat badagoen TEan indarkeriaren inguruko ekintza koordinatzeko	Estrategikoa
2. Zenbat prestakuntza ordu eman dituen TEak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta heltzeko	Orokorra
3. Zenbat prestakuntza ekintza egin diren eta zer motatakoak	Orokorra
4. TEko zenbat jendek parte hartu duen egindako prestakuntza ekintzetan, sexua eta toki koordinaziorako protokoloan bakoitzak zer erantzukizun duen adierazita	Orokorra
5. Zenbat ekintza egin diren, eta zer motatakoak, udalean eta udalez gaindi dauden baliabideak egokiro irits daitezen genero-indarkeriako arazoak dituzten emakumeengana	Orokorra
6. Zenbat ekintza, eta zer motatakoak, egiten diren udalerrian genero arloko arazoak dituzten emakumeek udal baliabideak eta zerbitzuak eskuragarriago izan ditzaten	Orokorra
7. Zenbat sentsibilizazio jarduera egin diren, eta zer motatakoak, TEak bultzaturik edo haren parte-hartzearekin	Orokorra
8. Zenbat jendek hartu duen parte TEtik egindako sentsibilizazio ekintzetan, sexua adierazita	Orokorra
9. Badagoen Koordinazioko Toki Akordioaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko urteko txosten bat	Estrategikoa
10. Zenbat jarduera egin diren, eta zer motatakoak, urteko txostenaren berri zabaltzeko	Orokorra
11. Zenbat programa berritzaile, eta zer motatakoak, sustatu diren udalerrian emakumearen aurkako indarkeriaren arloan	Estrategikoa

ESKU HARTZEKO 3. ARLOA: ZAINTZA, ERANTZUNKIDETASUNA, ETA EGINKIZUNAK BATERATZEA

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	
1. Indarrean den BATI bat dagoen	Orokorra
2. Zenbat erakundek parte hartzen duten BATIan aldizka, erakunde motaren arabera bereizita	Orokorra
3. Zenbat jendek parte hartzen duen BATIan aldizka, sexua adierazita	Orokorra
4. Zenbat ekintza, eta zer motatakoak, sustatu dituen TEak Zaintzaren Etika garatzeko herritarren artean	Estrategikoa
5. Zenbat jendek parte hartu duen eginkizunak erantzunkidetasunez batera daitezen sustatzeko udalerrian diseinatu diren ekintzetan, sexua adierazita	Estrategikoa
6. Zaintza lanen kudeaketa errazteko zenbat baliabide edo zerbitzu, eta zer motatakoak, egokitu edo abiarazi diren udalerrian, berdintasun alorraren partaidetzarekin	Orokorra
7. Zenbat onuradun izan dituzten abiarazitako baliabide edo zerbitzu berriek, sexua adierazita Oharra: udalaren alor bakoitzean aztertuko da informazioa adin talde handietan eta sexuaren arabera bereizita ematea posible den	Orokorra

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	
8. Zenbat jarduera berritzaile, eta zer motatakoak, abiarazi diren	Estrategikoa
9. Esperientzia berrien sistematizazioa, beste eremu batzuetara eramateko	Orokorra

ESKU HARTZEKO 4. ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTE-HARTZEA

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ADIERAZLE ESTRATEGIKOA
1. Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren TEan emakumeen ahalduntze pertsonala indartzeko	Estrategikoa
2. Zenbat emakumek parte hartu duten emakumeen ahalduntze pertsonala indartzeko jardueretan	Estrategikoa
3. Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren toki entitatean emakumeen generoko ahalduntze kolektiboa indartzeko	Estrategikoa
4. Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, abiarazi diren emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko	Estrategikoa
5. Badagoen Emakumeen Udal Kontseilu bat	Estrategikoa
6. Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren emakumeen mugimenduekin	Orokorra
7. Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren TEan balioen aldaketa sustatzeko	Orokorra
8. Zenbat jendek parte hartu duen jarduera horietan, sexua eta adina adierazita	Orokorra
9. Jardueretan parte hartzen duen 24 urtetik beherako biztanleriaren ehunekoa, sexua adierazita	Orokorra

5.2. HEDABIDEEKIN ERAGINKORTASUNEZ LAN EGITEA

Hedabideak (irratia, prentsa digitala zein idatzia eta telebista) udaletako berdintasun alorretako interes taldeetako bat dira. Haien bitartez berdintasun alorraren gaineko mota askotako informazioa iristen zaie herritarrei, une zehatzetan hedabideek eskaturik baina, gehienetan, alorretik zuzenean helarazirik. Azken kasu horretan, planifikatu egin daitezke edukiak, maiztasuna eta hedabideekiko harremana eta, halaber, hedabideak berdintasun alorren lanarekin lerraturiko interes talde bilakatzeko baldintzak sor daitezke. Izan ere, oso aliatu baliagarriak izan daitezke tokiko berdintasun politikak ikusgai egiteko eta duten balioa nabarmentzeko.

Hedabideekin lan egiteko planteamendurako aldez aurretik kontuan izan beharrekoa

Hedabideekin lan egiteko plangintzarako, aldez aurretik aintzat izan beharreko kontuak daude:

1| Berdintasuna ez da lehentasunezko gai bat hedabideendako, politika edo azken orduko berriak ez bezala. Beste gai sozial batzuekin gertatzen den moduan, berdintasuna bigarren mailako gaitzat edo betegarritzat jotzen da, eta baztertu egin dezakete hedabideak beste lehentasun komunikatibo batzuk baditu berdintasun alorrak berria igortzen duen unean.

2| Kazetariek badakite beren hedabidean bigarren mailako gai baten gisan tratatzen dela berdintasuna, ez bada oso une zehatzetan, esaterako, martxoaren 8a edo azaroaren 25a bezalako egun garrantzitsuekin loturiko ekintzetan, edota emakumeen kontrako indarkeriako gertakarietan. Berdintasun alorren berriek hedabideetan duten tratamendu hori berez desabantaila bat bada ere, nolabait gainditu daiteke alor horietatik jarrera proaktiboarekin jokatuz (hedabideak erakarriz, haiei notiziak emanda) eta plangintza hobearekin.

3| Kazetariek gai asko jorratu behar dituzte denbora gutxian. Horregatik, haiei zenbat eta informazio landuagoa eman, hau da, haiei lana zenbat eta gehiago erraztu, orduan eta hobea izanen da informazioaren komunikazioa.

4| Hedabideekin egiten den lanari plangintzaren bidez etekina ateratzea posible ez ezik gomendagarria ere bada, tokiko berdintasun politikak ikusgai egiteari eta duten balioa nabarmentzeari begira. Berdintasun alorreko eguneroko lanak notizia izan daitekeen informazio andana sortzen du baina ez da komunikatzen, denbora faltagatik eta berdintasun alorrerako gai hau ez delako lehentasuna. Alorraren urteko plangintza bere mugarri nagusiekin, urteko memoriak edota generoen arteko desberdinkeria eta bereizkeria fenomenoekin loturiko gaiei buruz alorrak eskainitako ikuspegi tekniko eta profesionala, adibidez, notizia izan daitezke.

5| Hedabideekin eta hedabideetatik informazioa zabaldu ahal izateko, aldez aurretik sistematizatua, jasoa eta analizatua izan behar da.

5.2.1. NOLA IRITSI HEDABIDEENGANA? MODU KLASIKOAK

Berdintasun alorretik hedabideetara iristeko modu klasikoak dira adierazpenak (adibidez, adierazpen instituzional bat martxoaren 8aren karietara), informazio dosierrak, informazio bisitak (adibidez, ahalduntze eskola edo ikastaro bat bisitatzea), laneko gosari edo bazkariak (adibidez, hizkera inklusiboari buruzko kode deontologikoaz aritzeko hedabideekin), bideo bat edo ikus-entzunezko materiala bidaltzea eta, orobat, prentsa deialdiak, prentsaurrekoak eta prentsa oharrak. Plan honetan, azken hiru baliabide horiek landuko ditugu xeheki.

PRENTSA DEIALDIAK

Zer dira?

Prentsaurreko baten iragarpena.

Aholkuak

- Oso lerro gutxitan idatzi prentsaurrekoetarako hedabideendako gonbidapenak: azterlan baten, jardunaldi batzuen, kanpaina baten... aurkezpenerako deiak.
- Argi eta garbi adierazi prentsaurrekoaren edo hedabideei zuzendutako ekitaldiaren eguna, ordua, gaia eta parte-hartzaileak.
- Gonbidapenak prentsaurrekoa baino egun batzuk lehenago bidali eta bezperan gogorarazi.

PRENTSAURREKOAK

Zer dira?

Jarduera edo ekintza bat aurkezteko ekitaldia.

Aholkuak

- Ezinbesteko prentsaurrekoak antolatu, berdintasun alorrerako bereziki garrantzitsuak diren gaietarako soilik. Esfortzu handia eskatzen dute eta batzuetan ez dute oihartzunik lortzen.
- Kontuan izan zer egunetan eta zer ordutan eginen diren, eta saiatu ez egiten beste deialdi batzuk dauden unean edo hedabideek beste hitzordu batzuk dituztela lehendik dakizuenean.
- Aurkezpen bat eta azalpen nagusi bat (laburra eta argia) izan behar ditu. 10 minutuan kontatu behar da oinarrizko informazioa, garrantzitsuenetik hasita, hedabideen arreta erakartzeko. Gero, xehetasun gehiago eman daitezke eta galderetarako tarte bat utzi.

Erantzunak aldez aurretik prestatzea komeni da (gutxienez galdera zailenetarako edo aurreikus daitezkeenetarako).

- Azalpenak esaldi irudimentsuez osatu behar dira, kazetariek irrati eta telebistetarako "ahots tarte" eta titular erakargarriak izan ditzaten.
- Prentsaurrekoaren bukaeran, komeni da bertaratu diren hedabide guztiei prentsa ohar bat banatzea informazio guztiarekin, eta ohar bera posta elektronikoz igortzea hedabide guztiei (bai prentsaurrekora joan direnei bai joan ez direnei).

PRENTSA OHARRAK

Zer dira?

Hedabideei idatziz ematen zaien informazio bat.

Aholkuak

- Oharra izenburu deigarri eta ulergarri batekin hasi, lerro batean edo bitan. Izenburuak laburbildu behar du hedabideei helarazi nahi zaien edukiaren muina.
- Oharraren lehen paragrafoan prentsa oharraren funtsezko edukiak bildu behar dira: zer, nork, nola, non, zenbat eta zergatik.
- Gainerako paragrafoetan xehetasunak gehitu daitezke, datu garrantzitsuak eman, aipuak sartu...
- Oharraren bukaeran harremanetarako telefono zenbaki bat jarri, prentsaurrekora joaterik ez dutenak edo informazio gehiago behar dutenak berdintasun alorrarekin harremanetan jarri ahal daitezen.

5.2.2. HEDABIDEETARA IRISTEKO ETA OIHARTZUN HANDIA LORTZEKO BESTE MODU BATZUK: ELKARRIZKETAK ETA SARE SOZIALAK

ELKARRIZKETAK

Elkarrizketak hedabideen arreta erakartzeko beste bide eraginkor bat dira. Elkarrizketatu daitezke, esaterako, berdintasun alorreko norbait (teknikari edo arduradun politiko bat), alorrak abiarazitako jardueraren batean parte hartzen duen eta berdintasunaren arloan profesionalki eta intelektualki izen handia duen norbait, edota berdintasun alorraren jardueren onuradunak.

Aholkuak

- Beti aldez aurretik prestatu elkarrizketak, eta argi izan zein den mezu nagusia.
- Hizlariak gaia ezagutu behar du, eta argudioak emateko gai izan.
- Edukiak datu estatistikoekin lagundu, eta aurreikusteko moduko galderei aurreratu, erantzun argi, garbi eta ulergarriak prestatuz.
- Ahal bada, modu desberdinetan errepikatu zabaldu nahi den mezua. Mezu bat finkatzeko, gutxienez hirutan errepikatzea komeni da.
- Gogoan izan elkarrizketak sentsibilizatzen laguntzen duten tresnak direla.
- Alorrarekin zerikusia duen jarduera bategatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan erreferentziazko norbait badago herrian, eta hedabideek elkarrizketatu dezaten nahi baduzue, prentsa ohar labur bat idatzi, pertsonaren curriculum vitae-a sartuz.

SARE SOZIALAK

Berdintasun alorraren lan zama handitzea dakarren arren, sare sozialetan izatea (adibidez, Facebooken eta Twitterren, eta baita WhatsAppen bidez ere) ezinbestekoa da hedabideetara eta beste interes talde batzuengana iristeko, hurrengo atalean zehatzago ikusiko denez. Horretarako, garrantzitsua da honetan espezializatutako beste udal alor batzuekin (informatikakoekin) elkarlanean jardutea. Bestalde, hedabideek ere baliatzen dituzte sare sozialak, gune desberdinetatik informazioa etengabe emateko.

5.3. WEBGUNEA, INTRANETA ETA SARE SOZIALAK AKTIBOKI ERABILTZEA

Udalaren webgunea, udalaren intraneta (baldin badago) eta sare sozialak komunikaziorako tresna erabilgarriak dira, tokiko berdintasun politikak oihartzun handiarekin helarazteko interes talde desberdinei. Horregatik, horiek erabiltzeaz gain, garrantzitsua da identifikatzea informazio motaren arabera zer tresnari emanen zaion lehentasuna berdintasun alorraren lanean, interes talde desberdinen arreta bideratzeko. Nolanahi ere, atal honetan proposatzen diren tresnak ezin dira izan komunikaziorako bide bakarrak: gogoan izanik generoko arrakala digitala dagoela eta pertsona batzuek komunikazio forma hauetara iristeko zailtasunak dituztela (hizkuntzagatik, aniztasun funtzionalagatik, baliabide ekonomiko urriengatik...), proposatutako bideak komunikaziorako beste tresna eta bide batzuekin osatu behar dira, jomugako interes taldeak zein diren.

UDALAREN WEBGUNEA

Udalaren webguneak berdintasun alorrerako toki berezi bat izan behar du, irisgarria eta erraz identifikatzeko modukoa. Toki horretan berdintasun alorrari buruzko informazio erabilgarri nahiko agertu behar da, multzokatuta eta hautatuta, gaiaren eta kronologiaren arabera antolatuta, interes taldeen premien arabera. Udalaren webgunea ordenarik gabeko edukien bilduma baino ez bada eta eguneratuta ez badago, berdintasun alorraren lanak oihartzun txikiagoa izanen du.

Interes taldeak

Herritarrak eta antolatutako herritarrak, udaleko arduradun politiko eta teknikariak, emakumeen mugimendu, talde eta elkarteak, erakunde eta eragile sozial eta ekonomikoak, erakunde publikoak eta hedabideak.

Proposatutako edukiak

Udalaren webguneak, gutxienez, jarraian azaltzen diren informazio motak izanen ditu. Modu desberdinetan multzokatu eta aurkeztu daitezke, udalaren arabera, eta udal webgunearen diseinuaren eta ezaugarri teknikoen arabera. Nahiz eta Nafarroako toki entitate gehienek baduten berdintasun alorraren lana ikusgai egiteko toki berezi bat udal webgunean, hemen gomendatzen dugun proposamenak udal webgune askoren edukiak berrikustea eta egokitzea eskatzen du, toki horretan ematen den informazioari etekina aterako bazaio.

Berdintasun alorraren gaineko informazioa

Toki horretan alorraren misioa azalduko da, labur esanez non dagoen kokatuta eta bertara nola iritsi, zer egitura duen, eta zer sare sozialetan dagoen (baldin badago).

Berdintasunarekin loturiko udaleko albisteen gaineko informazioa

Albisteak eta berdintasun alorretik berriki bultzatu diren jarduerei buruzko informazioa (ikastaroak, kanpainak, diru-laguntzak, etab.) eskaintzea, agenda gisa eta ikusizko formatuan, bereziki garrantzitsua da alorra ikusgai egin nahi bada. Izan ere, interes talde asko haien berri izateko sartzen dira berdintasun gaietako informazioan, eta bide ematen du hortik abiatuta alorrarekin loturiko bestelako informazioan sar daitezen. Horregatik, informazio hau webguneko toki nabarmen batean kokatuta egon behar da.

Udaleko berdintasun politikei buruzko berariazko informazioa

Udalaren esku-hartze esparrua zedarritzen duen informazio egonkor honetan sar daitezke: udalari eragiten dion araudia, Ibilbidea eta haren zehaztapena udaleko tokiko politiken plangintzaren barruan, indarrean den berdintasuneko udal plana, diagnostikoak, ebaluazioak, bateratzearen aldeko tokiko ituna, urteko memoriak, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko tokiko protokoloak, etab.

Parte-hartzeari eta elkarteei buruzko informazioa

Udalaren webguneak jaso dezakeen beste informazio bat emakumeek udalerrian eta tokiko politiketan parte hartzeko moduak dira. Hala, toki honetan sartuko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako udalean dauden kontseilu, foro eta guneei buruzko informazioa eta, orobat, herrian dauden emakume elkarteei eta talde feministei buruzkoa.

Informazio garrantzitsua, Ibilbideko arloen arabera multzokatuta

Udal webgunearen ezaugarrien eta alorraren laneko lehentasunen arabera, beste proiektu batzuei buruzko informazioa Ibilbideak jasotzen dituen lau eremuen arabera aurkeztea proposatzen dugu.

Baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa eta bestelako informazioa

Gainera, alorraren webguneak bannerrak izan behar ditu, erraz ikusteko moduan, garrantzitsutzat jotzen diren informazio, baliabide eta zerbitzuetara jotzeko, adibidez: alorrak berariaz kudeatzen duen prestakuntza zentro bat, berdintasun gaietako zerbitzuen zorroa eta/edo gutuna (halakorik bada), etab.

INTRANETA

Barneko webgune pribatua da. Baliabide hau duten toki entitateendako, oso tresna baliagarria da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkortasunez komunikatzeko, batez ere Ibilbideko 1. esku-hartze arloarekin (toki gobernamendua eta genero-zeharkakotasuna) loturiko informazioari dagokionez. Intraneta ongi antolatuta eta edukiak behar bezala banatuta badaude, ezagutza sortzeko eta erakundean eraginkortasunez lan egiteko aukera ematen du, udaleko langileei lanean laguntzeko helburua baitu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna udaleko lan prozesu eta prozedura guztietan txertatzeko baldintzak erakundea osatzen duen jende guztiaren esku jarriz.

Ez da gomendagarria udal webguneko informazioa intranetean errepikatzea. Tresna bakoitzak bere helburuak ditu eta elkarren artean osagarriak dira.

Intraneteko interes taldeak

Udaleko teknikariak eta arduradun politikoak.

Proposatutako edukiak

Udal webgunearekin gertatzen den bezala, udal bakoitzeko intranetak diseinu eta ezaugarri berekiak ditu. Premisa honetan oinarriturik, gune hau lehentasunez komunikaziorako erabiltzeko gomendatzen da, Ibilbideko 1. esku-hartze arloa txertatzeko. Zentzu honetan, eta

1. esku-hartze arloak biltzen dituen ildo estrategikoei jarraituz, arlo hori berdintasun alorraren lanaren %50 dela kontuan izanik, informazioa atalka biltzea proposatzen da:

1. atala: TEan berdintasuna txertatzeko egiturak

Toki entitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna txertatzeko egiturak identifikatzea (1. ildo estrategikoa).

Identifikatzea egiturak, egitura horiek osatzen dituzten pertsonak, haien misioa, eta haien funtzionamendua arautzen duen udal araudia.

2. atala: Berdintasunaren inguruko barneko prestakuntza plana

Barneko prestakuntza plana, toki entitatean genero-mainstreamingeko estrategia txertatzeko (2. ildo estrategikoa).

Prestakuntza planaren deskribapen laburra, prestakuntza jardueren urteko plangintzarekin, helburuak eta zein teknikari eta arduradun politikori zuzenduta dauden adieraziz.

3. atala: Antolamenduan genero-*mainstreaming*a txertatzeko prozedurak (3. ildo estrategikoa).

Toki entitatea Ibilbideko zein unetan dagoen, eta genero-zeharkakotasunerako bultzatzen ari den lan programen arabera, atal honetan erreferentziako materiala sartuko da, udaleko teknikariei eta arduradun politikoei programak ezartzeko laguntza teknikoa ematearren (araudia, erabakiak, udal prozedurak, protokoloak, adibideak, jardunbide egokiak, hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako "La lupa violeta" moduko tresnak, generoko klausulak sartzeari buruzko jarraibideak, etab.)

4. atala: Berdintasunaren inguruko informazioa udaleko teknikariendako eta arduradun politikoendako

Atal honetan sartuko lirateke Harrera plana, Sexu jazarpenaren eta sexuak eragindako jazarpenaren kontrako udal protokoloa, Berdintasuneko barneko plana, eta kexak, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko bidea eta/edo argibideak, etab.

SARE SOZIALAK ETA BESTE IKT BATZUK

Sare sozialak informazioaren truke dinamikorako sistema ireki moduan erabil daitezke, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, oro har, informazioa kudeatzeko eta igortzeko komunikazio tresna gisa. Ongi erabiliz gero, balio dute komunikazioa azkarragoa, eraginkorragoa eta jendetsuagoa izan dadin, berdintasuneko alorrek erabili izan ohi dituzten beste komunikazio modu batzuen (kartelak, iragarki oholak, triptikoak) aldean. Atal honetan horietako batzuk azaltzen dira zehatzago, Nafarroako toki entitateek gehien erabiltzen dituztenak. Nolanahi ere, sare sozialen kasuan batez ere, komunikatu nahi denaren arabera oihartzun handia lor dezaketen beste asko ere badaude, **YouTube**, adibidez.

FACEBOOK ETA TWITTER

Interes taldeak:

Herritarrak eta antolatutako herritarrak, batez ere. Gainera, emakumeen mugimendu, talde eta elkarteak, erakunde eta eragile sozial eta ekonomikoak, eta hedabideak.

Komunikatzeko gomendatzen den informazio mota:

Alorrak programatutako jarduerak eta indarrean direnak, ikastaroak, hitzaldiak, berritasunak, kanpainak, gaurkotasuna, bideoak, etab. Oro har, testu laburrak (Twitterrek ez ditu onartzen 140 karakteretik gorako *post*ak), ideia nagusia irudi, argazki, bideo, audio eta abarrekin lagunduta hedatu nahi denerako. Adibidez, urtero egiten den "Eta festetan... zer? Udalak festetan berdintasunaren alde" sentsibilizazio kanpaina sare sozialen bidez heda daiteke.

Indarguneak:

- Mezuak denbora errealean igorri eta jaso daitezke.

- Ekintzak, programak, zerbitzuak eta abar azkar hedatzen laguntzen dute.
- Oihartzun handia dute interes taldeetan, aukera ematen dutelako mezuak azkar zabaltzeko, jende gehiago gehitzeko eta mezuak birbidaltzeko, berdintasun alorrak sare sozialetan dituen jarraitzaileetatik abiatuta.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria eta bereizkeriekin loturiko gaien inguruko sentsibilizazioa errazten dute. Esaterako, Twitterren *hashtag* bat erabiliz, une jakin batean herrian garrantzitsua den gai baterako.

IKT-AK: Posta elektronikoa, SMSak, WhatsApp.

Interes taldeak:

Udaleko arduradun politiko eta teknikariak, emakumeen mugimendu, talde eta elkarteak (Tokiko Berdintasunerako Kontseilua) eta ekimen zehatzetarako eratutako taldeak (Bateratzearen aldeko Tokiko Ituneko partaideak, berdintasun alorrak bultzatutako ikastaro batean izena eman duen jendea, etab.).

Komunikatzeko gomendatzen den informazio mota:

Informazio zehatzak, batzarretarako deiak, epeak edo jarduerak gogorarazteko mezuak, etab.

Indarguneak:

- Mezuak denbora errealean igorri eta jaso daitezke.
- Interes talde desberdinekin komunikazio homogeneo eta azkarra izatea errazten dute.
- Posta elektronikoaren kasuan, mezuak luzeagoak izan daitezkeenez, argudioak, azalpenak, dokumentazio lagungarria eta abar igortzeko aukera dago.

5.4. BERDINTASUN ALORRAREN KOMUNIKAZIO PROZESUETAN KALITATEA TXERTATZEA

Interes taldeek ez dituzte ezagutzen udaletako berdintasun alorren laneko edukiak eta horregatik, maiz, ez dituzte balioesten. Nahiz eta plan honetan deskribatzen diren ekintza guztiek duten, zuzenean edo zeharka, jomuga hori, atal honetan xeheago azaltzen dira, zehazki, Nafarroako toki entitateetako berdintasun alorren eginkizuna eta lana eraginkortasunez ezagutarazteko proposatzen direnak. Edonola ere, tresna hauek berdintasun alorrak legitimatzen eta sendotzen lagunduko dute, baina etengabeko hobekuntzako eta kalitatea kudeatzeko prozesuen bitartez.

Atal honetan, helburu horretan aurrera egiteko lau tresna aurkeztuko ditugu, baina badira udaletako berdintasun alorrak dagoeneko erabiltzen dituzten edo bultza ditzaketen beste batzuk, hala nola berdintasun alorrek egiten duten lanari buruzko pertzepzio inkestak, udaletako arduradun politikoei eta teknikariei zuzendurik.

EMAKUKEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO ZERBITZUEN ZORROA

Zer da?

Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egiazko bihurtzeko baliatzen duen jarduera, baliabide, prestazio eta/edo metodoen multzoa da. Hau da, zorroak jaso behar ditu udalak herritarrekiko duen konpromiso hori egiazko bihurtzeko behar diren oinarrizko eta ohiko zerbitzuak.

Interes taldeak

Herritarrak eta antolatutako herritarrak, batez ere. Zeharka, beste interes talde batzuk ere bai, adibidez, udaleko arduradun politikoak eta teknikariak.

Zorroa prestatzeko gomendioak

a) Proposatutako edukiak

Zerbitzuen zorroaren xedearen aurkezpen labur baten ondoren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko tokiko entitateak eskaintzen dituen irismen handieneko zerbitzuak aurkeztuko dira, Ibilbideko lau esku-hartze arloen arabera egituratuta.

Zorroan sar daitezke herritarrei ematen zaizkien berdintasunaren inguruko zerbitzuak, baina udalerriko herritarrei eragiten dieten beste eskumen esparru batzuetako prestazio batzuekin ere (adibidez Nafarroako Gobernuak emandakoekin) osa daitezke. Esku hartzeko 2. arlorako (Emakumeen kontrako indarkeria), beste administrazio publiko batzuek bermatutakoak edo ezarritakoak hobetzen edo zabaltzen dituzten udaleko baliabide eta zerbitzuak sar daitezke.

Toki entitateak berdintasunarekin loturiko berariazko prestazio edo baliabideak kudeatzen baditu, azalduko da prestazio edo baliabide horiek zer motatakoak diren, zer helburu duten, nori zuzenduta dauden, horiek eskuratzeko betekizunak (baldin badaude), ordutegiak eta ezaugarriak, baliabide edo zerbitzua doakoa den ala ez zehaztuz.

b) Onespena

Udal eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko zerbitzuen zorroa, Berdintasun Alorrak prestatu eta gero, toki entitateko aginte organo gorenak onetsi behar du.

c) Zabalkundea

Udalaren webgunearen bidez, euskarri grafikoetan (diptikoak, kartelak, etab.), interes taldeekin lansaioak eginez, etab.

Zerbitzuen zorroa laburra eta edozein herritarrek ulertzeko moduko hizkerarekin idatzia izan behar da.

ZERBITZUEN GUTUNA

Zer da?

Zerbitzuak emateari dagokionez erakunde batek, kasu honetan toki entitate batek, bere borondatez hartzen dituen konpromisoen berri ematen duen dokumentu bat. Zerbitzuen gutunen funtsezko eginkizuna zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea da; izan ere, haien kudeaketa hobetzen dute, eta emandako zerbitzuarekin jendeak duen konfiantza eta gogobetetasun maila handitzen.

Interes taldeak

Herritarrak eta antolatutako herritarrak, batez ere.

Zerbitzuen gutuna sortzeko edo ezartzeko gomendioak

- Zerbitzuen gutuna prestatzeko ezinbestekoa da udaleko aginte organoen babesa eta inplikazio esplizitua.
- Zerbitzuen gutuna ez da alorraren proiektu isolatu bat, aitzitik, erakundearen barneko hobekuntza prozesuarekin loturik dago eta, beraz, talde egonkor eta gaitu batek hartu behar du haren ezarpenaren eta jarraipenaren gaineko ardura. Nafarroako hainbat toki entitatek dituzte zerbitzuen gutunak (Tuterako, Atarrabiako eta Iruñeko udalek), Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak berak ere badu bat, eta Nafarroako Gobernuko hainbat departamentu eta erakundek ere bai. Nafarroan ez dago berdintasunaren inguruko berariazko zerbitzuen gutunik, baina badituzte Nafarroatik

kanpoko udal batzuetan, esaterako, Bilbon (Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeak Artatzeko Zerbitzu Karta) eta Arrigorriagan (Berdintasuneko Zerbitzu Karta), eta, gainera, Interneten eskura daude.

- Berdintasuneko zerbitzuen gutunetan jasotako konpromisoak abiatu behar dira herritarrek gai honetan dituzten itxaropenetatik.

Proposatutako edukiak

- Berdintasun alorraren identifikazio datuak.
- Ematen diren zerbitzuen zerrenda. Zerbitzuen zorroko deskribapenaren antzekoa erabiliko da.
- Harremanetarako informazioa (telefonoa, ordutegiak, tokia).
- Zerrenda bat kalitateko araudiarekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko arau, plan eta proiektuekin. Ibilbidea, adibidez, atal honetan aipatuko litzateke.
- Herritarrek parte hartzeko moduak (herritarrekiko eta baliabide eta zerbitzuen erabiltzaileekiko lankidetza).
- Kalitateko konpromisoak eta adierazleak.
- Zuzenketa eta konpentsazio neurriak, konpromisoak betetzen ez direnerako.
- Emandako zerbitzuei buruzko iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta esker oneko mezuak aurkezteko bideak.

Zabalkundea

Gutuna onetsitakoan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da, Nafarroako Gobernuko Politiken eta Zerbitzu Publikoen Kalitatearen Ebaluazioaren Erregistroan inskribatu eta, bide desberdinak baliatuz, herritarrei eta interes taldeei ezagutzera eman. Informazio hau, eta gai honekin loturiko beste edozein, Nafarroako Gobernuaren webgunean aurki daiteke:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Administracion+Publica/Evaluacion+y+Calidad/Cartas+de+servicios/

BERDINTASUNAREN INGURUKO HARRERA PLANA

Zer da?

Harrera plan baten xedea, berez, erakunde batean hasiberrien sarrera, sozializazioa eta jarraipena planifikatzea bada ere, agiri honetan proposatzen den Harrera planaren helburua da toki entitatean hasiberria den edonori eraginkortasunez komunikatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruan jakin beharra duen informazio guztia.

Hala ere, ideala izanen litzateke toki entitateak Harrera plan orokor bat izatea eta hartan txertatzea udaleko arduradun politiko eta teknikari berri guztiek berdintasunari buruz jakin beharra duten erreferentziako informazio guztia (jakiteko gogoa duen beste edonorendako ere jakingarria dena), aintzat harturik langileen edo giza baliabideen departamentuari dagokiola plan hori prestatzea, berdintasun alorrarekin elkarlanean arituz eskumen esparru honetako gaietarako.

Egiaztatuta dago Harrera plan batek hobetu egiten duela kontratatutako langile berriek gai desberdinekiko duten motibazioa, inplikazioa eta jarrera eta, halaber, erakundearen kanpoko irudia hobetzen dutela. Berdintasunari dagokionez, adibidez, gisa honetako plan batek balio du langile berriek toki entitateak gai horretan dituen helburuekin bat egin dezaten, beren eskubideak ezagut ditzaten eta, orobat, beren lana uler dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko prozesuaren parte moduan, dauden postuan edo alorrean daudela ere.

Interes taldeak

Udaleko teknikari eta arduradun politiko berriak.

Berdintasunaren inguruko berariazko Harrera Planerako proposatutako edukiak

- Harrera/ongietorria
- Toki entitateak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako hartutako konpromisoak, batez ere toki gobernamenduaren eta genero-zeharkakotasunaren esparruan, eta egitura desberdinetan duten zehaztapena (berdintasun alorra, alor arteko batzordea, etab.). Gainera, laburki jasoko ditu udal, erkidego eta estatu mailako araudia eta erabakiak, erreferentziakoak direnak udalean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan lan egiteko (Ibilbidea, Berdintasuneko barneko plana, etab.).
- Berdintasunaren inguruko barneko prestakuntza planari buruzko informazioa (berdintasunaren gaineko prestakuntza nahitaezkoa izan beharko litzateke toki entitatean sartzen den jende berriarendako).
- Informazioa, toki entitatean dauden eta langile publikoendako ezarritakoak hobetzen dituzten eskubide eta baliabideez, izan beste pertsona batzuen zaintzarekin lotutako eskubideak zein emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturiko bestelako baliabide eta eskubideak.
- Sexu jazarpenaren eta sexuak eragindako jazarpenaren kontrako udal protokoloa edo araudia.
- Hizkera sexista saihesteko gomendioak, aipatuz informazio hori intranetean non dagoen jasota.
- Garrantzitsutzat jotzen den beste edozein informazio, hala nola udalean berdintasunaren inguruko kexak, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko prozedura, halakorik bada.

Zabalkundea

Udalaren intraneta, posta elektronikoz igortzea, bana-banako azalpenak (kasuan kasuko postuaren ezaugarrien arabera), etab.

URTEKO MEMORIA

Zer da?

Urteko memoria da urte batean berdintasun alorrean izan diren mugarri nagusiak eta lanaren emaitzak jasotzen dituen dokumentua.

Interes taldeak

Udaleko arduradun politikoak eta teknikariak, emakumeen mugimendu, talde eta elkarteak, erakunde publikoak (NABI, besteak beste) eta hedabideak.

Proposatutako edukiak

- Aurkezpena
- Berdintasun alorraren organigrama
- Esku hartzeko arloetako bakoitzerako helburuak, jarduerak eta egindako lanaren emaitzak
- Interes talde desberdinekiko harremana
- Alorraren aurrekontu betearazia, esku hartzeko arloetan banatuta
- Hurrengo urterako laneko ildoen proposamen orokor eta errealista

Beste gomendio batzuk

Gomendatzen da memoria soilik formatu digitalean egitea, gehienez 12 orrialde izatea, eta gutxienez adierazle estrategikoen emaitzak jasotzea. Oso bisuala izatea komeni da, hots, grafikoak, bilakaeraren analisiak eta argazkiak sartzea.

Zabalkundea

- Udalaren webgunea.
- Posta elektronikoz igortzea udaleko arduradun politiko eta teknikariei eta, orobat, NABIra.
- Prentsa ohar bat igortzea tokiko hedabideetara emaitza esanguratsuenekin.
- Emaitzak Berdintasun Batzordera igortzea eta han aurkeztea, baita garrantzi bereziko beste toki batzuetan ere.

6] KOMUNIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarraipena eta ebaluazioa planaren funtsezko atalak dira eta balio dute egindakoaren informazio sistematizatua izateko ez ezik, komunikazio jarduerak intereseko talde desberdinen premietara egokitzeko. Jarraian komunikazioaren adierazle estrategikoen proposamen bat egiten da, udaletako berdintasun alorretarako. Adierazle hauek ematen duten informazioa ere interes talde desberdinei helarazi behar zaie, besteak beste, udaleko arduradun politikoei.

KOMUNIKAZIOAREN ADIERAZLEAK

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ADIERAZLE MOTA
1. Badagoen alorraren urteko memoriarik	Estrategikoa
2. Egunean den berariazko atal bat dagoen webgunean	Estrategikoa
3. Badagoen urteko komunikazio plan bat	Estrategikoa
4. Zenbat ekintza, eta zer motatakoak, egin diren hedabideei zuzendurik	Estrategikoa
5. Zenbat komunikazio ekintza, eta zer motatakoak, egin diren interes talde guztiei zuzendurik	Estrategikoa
6. Berdintasun alorraren jarraipena Facebooken eta beste sare sozial batzuetan	Estrategikoa

7] ETA HEMENDIK AITZINA?

Informazio hau abiapuntua da, udaletako berdintasun alor bakoitzak informazioa homogeneoki sistematizatzeko baldintzak izan ditzan eta, hortik aitzina, komunikazioko politika eraginkorra diseinatu eta antolatu dezan. Proposamen orokor hau toki entitate bakoitzak zehaztu eta egokitu beharko du, Berdintasun politikak komunikatzeko udal planean. Eginkizun hori baldintzarik onenetan burutzeko elementu eta gomendioak biltzen dira agiri honetan. Horrenbestez, berdintasun alor bakoitzak erabaki beharko du zer egin eta nola egin.

1. ERANSKINA. ADIERAZLEEN IDENTIFIKAZIOA ETA JARRAIPENA

ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

<table>
<tr><th>IE</th><th>P</th><th>ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA</th><th>ITURRIA</th><th>AGENTE ARDURADUNA</th><th>ALDIZKAKOTASUNA</th><th colspan="7">INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA</th><th>2015EKO BALIOA
Erreferentzia</th><th>2019KO BALIOA
Helburuak</th></tr>
<tr><td>1</td><td>1</td><td>Badagoen berdintasunerako udal alor berariazko bat</td><td>Udal organigrama</td><td>ABA</td><td>4 urtean behin</td><td colspan="7">BAI
EZ</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="3">1</td><td rowspan="3">1</td><td rowspan="3">Udalaren berdintasun alorra osatzen duen jende kopurua, sexua adierazita, baita zer maila eta kontratu mota dituzten eta plantilla organikoan sartuta dauden ere</td><td rowspan="3">Plantilla</td><td rowspan="3">Idazk./GB
ABA</td><td rowspan="3">Urtean behin</td><td colspan="2">Pertsona</td><td colspan="3">Ezaugarriak</td><td rowspan="3"></td><td rowspan="3"></td></tr>
<tr><td>E</td><td>G</td><td>MAI</td><td>KONT. M</td><td>PL. ORG</td></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>1</td><td>1</td><td>Badagoen Alorren arteko Koordinazio Mahai bat</td><td>Ebazpena</td><td>ABA</td><td>Urtean bitan</td><td colspan="7">BAI
EZ</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>2</td><td>2</td><td>Badagoen barneko prestakuntza plan bat</td><td>Prestakuntza plana</td><td>ABA
GB</td><td>Urtean behin</td><td colspan="7">BAI
EZ</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td rowspan="4">2</td><td rowspan="4">2</td><td rowspan="4">Prestakuntza jasotzen duen jende kopurua, sexua, ardura maila eta prestakuntza-ekintza mota adierazita</td><td rowspan="4">Prestakuntza planaren urteko memoria edo ekintzen memoria</td><td rowspan="4">ABA
GB</td><td rowspan="4">Urtean behin</td><td colspan="3" rowspan="2">KATEGORIA</td><td colspan="4">PARTE HARTZAILEAK</td><td rowspan="4"></td><td rowspan="4"></td></tr>
<tr><td colspan="2">E</td><td colspan="2">G</td></tr>
<tr><td colspan="3">Zuzend./Ard. politikoak</td><td colspan="2"></td><td colspan="2"></td></tr>
<tr><td colspan="3">Burutzak</td><td colspan="2"></td><td colspan="2"></td></tr>
<tr><td colspan="3">Unitateko ard.</td><td colspan="2"></td><td colspan="2"></td></tr>
</table>

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA			2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						Postu teknikoak				
						Admin. postuak / Bestelakoak				
2	2	Udaleko arduradun politiko eta teknikariek egindako prestakuntza orduak, prestakuntza-ekintza mota adierazita	Prestakuntza planaren urteko memoria edo ekintzen memoria	ABA GB	Urtean behin	EKINTZA MOTA	ORDU KOP.			
3	3	Badauden genero-eraginari buruzko ebaluazioak egiteko jarraibideak edo prozedura bat	Ebazpena/ Ordenantza/ Jarraibidea/ Beste batzuk	ABA	Urtean behin	BAI EZ				
3	3	Udalaren zenbat plan eta arauk duten genero-eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioa, udal prozeduraren arabera	Eraginari buruzko DBak	Idazkaritza	Urtean behin	Udal prozedura bat edo jarraibideak baldin badaude: Udalaren zenbat plan eta arauk duten genero-eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioa.				

ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
3	4	Berdintasun alorraren urteko aurrekontuari dagokion ehunekoa, udalaren urteko aurrekontu osotik	Udal aurrekontua	Kontu-hartzailetza ABA	Urtean behin	Ehunekoa kalkulatzea			
3	4	Berdintasun alorraren urteko aurrekontuaren bilakaera, ehunekotan, Ibilbideko esku-hartze arloen arabera banatuta	Udal aurrekontua Berdintasun alorreko kontu-sailak	Kontu-hartzailetza ABA	Urtean behin	Arloa	Aurrekontuaren %		
						Gobernamendua			
						Indarkeria			
						Erantzunkidetasuna			
						Ahalduntzea			
3	5	Badagoen udal plantillaren sexuaren araberako bilakaera aztertzen duen txosten bat	Idazk./GB Berdintasuneko barneko plana	Idazk./GB ABA	4 urtean behin	BAI EZ			
3	5	Zenbat ekintza eta zer motatakoak sustatu diren genero-desberdinkeria eta bereizkeriako egoerak zuzentzeko udal plantillan	Memoria Berdintasuneko barneko plana	Idazk./GB ABA	Urtean behin	Ekintza mota	Kop.		
						Adib. Sentsibilizazio ekintzak			
						Adib. Baimenak			
3	6	Zenbat barne-jarraibide eta zer motatakoak dauden hizkuntzaren erabilera ez-sexista sustatzeko	Barne araudia eta jarraibideak	Idazkaritza ABA	Urtean behin	Jarraibide mota	Kop.		
						Adib. Ordenantza			

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
3	6	Udalaren webgunean badagoen atal bat udalaren berdintasun alorretik egiten den lana ikusgai egiteko	Udalaren webgunea	ABA	Urtean behin	BAI EZ			
3	7	Badagoen udal prozedura bat kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan genero-baldintzak txertatzeko	Prozedura	Idazkaritza ABA	Urtean behin	BAI EZ			
3	7	Zenbat genero-baldintza eta zer motatakoak txertatu diren diru-laguntza eta hitzarmenetan	Berdintasun alorreko informazioa	Idazkaritza ABA	Urtean behin	TIPOLOGIA	Kop.		
						Xedean espresuki aipatzen da berdintasuna			
						Parte hartzeko debekua, sexuagatiko bereizkeriagatik epai irmoa izanez gero			
						Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna aukerako jardueren artean			
						Berdintasuna bultzatzeko lan ildoak txertatu dira aukeran diren jardueren artean			
						Berdintasuneko alderdiak sartu dira balorazio irizpideetan			
						Nahitaezkoa da informazioa sexuka banatuta ematea			
						Nahitaezkoa da hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzea			

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						Beste batzuk (zehaztu)			

ESKU HARTZEKO 1. ARLOA: TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA			2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
3	8	Irizpiderik badagoen emakumeen eta gizonen presentzia orekatua errazteko TEko izaera egonkorreko batzorde, tribunal edo epaimahaietan	Estatutuak Ebazpena	ABA	4 urtean behin	BAI EZ				
4	1	Udalak parte hartzen ote duen tokiko garapen iraunkorra genero-ikuspegia txertaturik helburu duten mekanismo edo egituretan Mekanismo edo egitura motak	Estatutuak, eraketa aktak, beste batzuk. TGPE	ABA	4 urtean behin	BAI EZ Baiezko kasuan, mekanismo edo egitura motak:				
4	2	TEko zenbat arduradun politiko eta teknikarik, sexuaren arabera bereizita, hartu duten parte genero-ikuspegia duen tokiko garapen iraunkorrari buruzko prestakuntza ekintzetan	ABA Idazk./GB TETak edo Landa Garapeneko Entitateak	ABA	4 urtean behin	KATEGORIA	Jende kop. E	Jende kop. G		
						Zuzend./ Ard. politikoak				
						Burutzak				
						Unitateko ard.				
						Postu teknikoak				
						Admin. postuak /				

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						Bestelakoak			
4	3	Lurraldearen tokiko garapen iraunkorrerako garrantzizko zenbat proiektu, plan eta/edo jarduera dauden, eta zer motatakoak, genero-eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazioarekin	Planak Proiektuak Programak Landa Garapeneko Entitateak	ABA	Urtean behin	MOTA	Kop.		
						Ingurumen arlokoa			
						Ekonomikoa			
						Lan arlokoa			
						Beste batzuk (zehaztu)			
4	4	Zenbat proiektu eta zer motatakoak sustatu diren udalerrian edo lurraldean, genero-desberdinkeria edo bereizkeriako berariazko egoerak zuzentzeko.	Alor arteko batzordearen arduradunak Berdintasun Alorra Landa Garapeneko Entitateak	ABA	Urtean behin	PROIEKTU MOTA	Kop.		
						Ingurumen arlokoa			
						Ekonomikoa			
						Lan arlokoa			
						Beste batzuk (zehaztu)			

ESKU HARTZEKO 2. ARLOA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA			2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
1	1	Udal protokolo bat badagoen TEan indarkeriaren inguruko ekintza koordinatzeko	Protokoloa Protokoloaren urteko memoria	ABA	Urtean behin	BAI EZ				
1	2	Zenbat prestakuntza ordu eman dituen TEak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta heltzeko	GB Berdintasuneko prestakuntza plana	ABA	Urtean behin	Ordu kop.:				
1	2	Zenbat prestakuntza ekintza egin diren eta zer motatakoak	GB Berdintasuneko prestakuntza plana	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.	Orduak		
						Berdintasuna				
						Protokoloa/ Koordinazioa				
						Indarkeria (oinarrizkoa)				
						Indarkeria (espezializatua)				
1	2	TEko zenbat jendek parte hartu duen egindako prestakuntza ekintzetan, sexua eta toki koordinaziorako protokoloan bakoitzak zer erantzukizun duen	GB Berdintasuneko prestakuntza plana	ABA	Urtean behin	KATEGORIA	PERTSONAK			
							E	G		
						Zuzend./ Ard. politikoak				

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA			2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
1	2	adierazita	Berdintasun Alorra	ABA	Urtean behin	KATEGORIA	PERTSONAK			
							E	G		
						Zuzend./ Ard. politikoak				
						Burutzak				
						Unitateko ard.				
						Postu teknikoak				
						Admin. postuak / Bestelakoak				
						Udaltzaingoa				
1	3	Zenbat ekintza egin diren, eta zer motatakoak, udalean eta udalez gaindi dauden baliabideak egokiro irits daitezen genero-indarkeriako arazoak dituzten emakumeengana	Berdintasun alorreko memoria Urteko txostena	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.			
						Informazioa				
						Baliabideen mapa egokitzea				
						Sentsibilizazioa				
						Beste batzuk (zehaztu)				
1	4	Zenbat ekintza, eta zer motatakoak, egiten diren udalerrian genero arloko arazoak dituzten emakumeek udal baliabideak eta zerbitzuak eskuragarriago izan ditzaten	Alorreko memoria Urteko txostena Alor arteko batzordeko kideak	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.			
						Generoko klausulak				
						Postuak erreserbatzea				
						Kuoten murrizketa/ salbuespena				
						Beste batzuk (zehaztu)				
2	1	Zenbat sentsibilizazio jarduera egin	Alorreko memoria	ABA	Urtean behin	SENTSIBILIZAZIOKO	Kop.			

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA			2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
2	1	diren, eta zer motatakoak, TEak bultzaturik edo haren parte-hartzearekin	Urteko txostena	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA	Kop.			
						Elkarretaratzeak (Adib.)				
						Kanpainak (Adib.)				
2	1	Zenbat jendek hartu duen parte TEtik egindako sentsibilizazio ekintzetan, sexua adierazita	Alorreko memoria Urteko txostena	ABA	Urtean behin	SENTSIBILIZAZIOKO JARDUERA MOTA	E	G		
						Gaitzesteko elkarretaratzea (Adib.)				
2	2	Badagoen Koordinazioko Toki Akordioaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzko urteko txosten bat	Txostena	ABA	Urtean behin	BAI EZ				
2	2	Zenbat jarduera egin diren, eta zer motatakoak, urteko txostenaren berri zabaltzeko	Komunikazio plana	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.			
2	3	Zenbat programa berritzaile, eta zer motatakoak, sustatu diren udalerrian emakumearen aurkako indarkeriaren arloan	Alorreko memoria	ABA	Urtean bitan	PROIEKTU BERRITZAILEAK, ALDERDI HAUEI DAGOKIENEZ:	Kop.			
						Prozedurak				
						Emaitzak				

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						Edukiak			
						Zer publikori zuzentzen zaion			
						Beste batzuk (zehaztu)			

ESKU HARTZEKO 3. ARLOA: ZAINTZA, ERANTZUNKIDETASUNA, ETA EGINKIZUNAK BATERATZEA

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
1	1	Indarrean den BATI bat dagoen	Landutako BATIko dokumentua eta bilera aktak	ABA	Urtean behin	BAI EZ			
1	1	Zenbat erakundek parte hartzen duten BATIan aldizka, erakunde motaren arabera bereizita	Ituneko aktak	ABA	Urtean behin	ERAKUNDE MOTA	Kop.		
						Erakunde publikoak			
						Elkarteak eta antolatutako herri mugimenduak			
						Enpresak			
						Eragile ekonomiko eta sozialak			
						Beste batzuk			
1	1	Zenbat jendek parte hartzen duen BATIko bileretan aldizka, sexua adierazita	Ituneko aktak	ABA	Urtean behin	E kop.	G kop.		
1	2	Zenbat ekintza, eta zer motatakoak, sustatu dituen TEak Zaintzaren Etika garatzeko herritarren artean	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.		
						Sentsibilizazioa			
						Prestakuntza			
						Emakumeen eta gizonen arteko itunak			
						Denbora kudeatzeko modu berriak			

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA			2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						Beste batzuk				
1	2	Zenbat jendek parte hartu duen eginkizunak erantzunkidetasunez batera daitezen sustatzeko udalerrian diseinatu diren ekintzetan, sexua adierazita	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	E	G		
						Sentsibilizazioa				
						Prestakuntza				
						Emakumeen eta gizonen arteko itunak				
						Denbora kudeatzeko modu berriak				
						Beste batzuk				
2	1	Zaintza lanen kudeaketa errazteko zenbat baliabide edo zerbitzu, eta zer motatakoak, egokitu edo abiarazi diren udalerrian, berdintasun alorraren partaidetzarekin.	Urteko memoria/ BATIko aktak	ABA	Urtean behin	BALIABIDE MOTA	Kop.			
						Jubiloteka				
						Ludoteka				
						Udal programazioko zaintza baliabideak				
						Hiri kanpaldiak				
						Beste batzuk (zehaztu)				
2	1	Zenbat onuradun izan dituzten abiarazitako baliabide edo zerbitzu berriek, sexua adierazita Oharra: udalaren alor bakoitzean aztertuko da informazioa adin talde handietan eta sexuaren arabera bereizita ematea posible den	Zerbitzu edo baliabideen memoria	ABA	Urtean behin	BALIABIDE MOTA	E	G		
						Jubiloteka				
						Ludoteka				
						Udal programazioko zaintza baliabideak				
						Hiri kanpaldiak				
						Beste batzuk (zehaztu)				
2	2	Zenbat jarduera berritzaile, eta zer motatakoak, abiarazi diren	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	BERRIKUNTZA MOTA	Kop.			
						Prozedurak				
						Emaitzak				

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						Edukiak			
						Zer publikori zuzentzen zaion			
2	2	Esperientzia berrien sistematizazioa, beste eremu batzuetara eramateko	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	Bai Ez Baiezko kasuan, zeintzuk izan dira eta zer formatu erabili da (fitxa, argitalpena, webgunea...)?			

ESKU HARTZEKO 4. ARLOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA BALIOEN ALDAKETA

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
1	1	Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren TEan emakumeen ahalduntze pertsonala indartzeko	Urteko memoria	ABA Arduradun alorrak	Urtean behin	**JARDUERA MOTA**	**Kop.**		
						Ahalduntzerako prestakuntza			
						Emakumeak ikusgai egitea eta erreferenteak eta genealogiak sortzea			
						Ahalduntzeko guneak bultzatzea (ahalduntze eskola, emakumeen etxea, emakumeen elkartea, etab.)			
						Beste batzuk (zehaztu)			
1	1	Zenbat emakumek parte hartu duten jardueretan	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA	E		
						Ahalduntzerako prestakuntza			
						Emakumeak ikusgai egitea eta erreferenteak eta genealogiak sortzea			
						Ahalduntzeko guneak bultzatzea (ahalduntze			

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
						eskola, emakumeen etxea, emakumeen elkartea, etab.)			
						Beste batzuk (zehaztu)			
1	2	Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren toki entitatean emakumeen generoko ahalduntze kolektiboa indartzeko	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA, ESPARRUKA	Kop.		
						Jarduera ekon. eta enplegua			
						Gizarteratzea			
						Mugikortasuna			
						IKTak			
						Kultura, aisia eta kirola			
						Beste batzuk			
1	2	Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, abiarazi diren emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA	Kop.		
						Tokiko politiken diseinuan emakumeek parte hartzeko egiturendako laguntza			
						Elkarteen dinamizazioa			
						Emakumeek ordezkaritza eta erabaki postuetan parte hartzeko bultzada			
						Beste batzuk (zehaztu)			
1	2	Badagoen Emakumeen Udal Kontseilurik / Tokiko	Eraketa akta Bilera aktak	ABA	Urtean behin	BAI EZ			

IE	P	ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
		Berdintasunerako Kontseilurik							
2	2	Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren emakumeen mugimenduekin	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA	Kop.		
						Laguntza ekonomikoa			
						Aholkularitza eta informazioa			
						Dinamizazioa			
						Beste batzuk (zehaztu)			
2	1	Zenbat jarduera, eta zer motatakoak, egin diren TEan balioen aldaketa sustatzeko	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA	Kop.		
						Sentsibilizazioa			
						Prestakuntza			
						Azterlanak/diagnostikoak			
						Baliabideak			
						Beste batzuk (zehaztu)			
2	1	Zenbat jendek parte hartu duen jarduera horietan, sexua eta adina adierazita Jardueretan parte hartzen duen 24 urtetik beherako biztanleriaren ehunekoa, sexua adierazita Oharra: <24% = 24 urtetik beherakoen ehunekoa	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	JARDUERA MOTA	E <24% G <24%		
						Sentsibilizazioa			
						Prestakuntza			
						Azterlanak/ diagnostikoak			
						Baliabideak			
						Beste batzuk (zehaztu)			

KOMUNIKAZIOAREN ADIERAZLEAK

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
Badagoen alorraren urteko memoriarik	Urteko memoria	ABA	Urtean behin	BAI EZ			
Egunean den berariazko atal bat dagoen webgunean	Udalaren webgunea.	ABA	Urtean behin	BAI EZ			
Badagoen urteko komunikazio plan bat	Komunikazio plana	ABA	Urtean behin	BAI EZ			
Zenbat ekintza, eta zer motatakoak, egin diren hedabideei zuzendurik	Komunikazio plana Alorreko memoria	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.		
				Prentsa oharrak			
				Elkarrizketak			
				Iritzi artikuluak			
				Prentsaurrekoak			
				Prestakuntza/ Sentsibilizazioa hedabideekin			
				Iragarkiak/ irrati tarteak			
				Beste batzuk (zehaztu)			
Zenbat komunikazio ekintza, eta zer motatakoak, egin diren interes talde guztiei zuzendurik	Facebook Alorreko memoria	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.		
				Berriak udal webgunean			
				Berriak Facebooken			

ADIERAZLEAREN DESKRIBAPENA	ITURRIA	AGENTE ARDURADUNA	ALDIZKAKOTASUNA	INFORMAZIOA BILTZEKO METODOA		2015EKO BALIOA Erreferentzia	2019KO BALIOA Helburuak
				Berriak beste sare sozial batzuetan			
				Triptikoak			
				Kartelak			
				Bideoak			
				Beste batzuk (zehaztu)			
Berdintasun alorraren jarraipena Facebooken eta beste sare sozial batzuetan	Facebook Beste sare batzuk	ABA	Urtean behin	EKINTZA MOTA	Kop.		
				Jarraitzaileak Facebooken			
				Jarraitzaileak beste sare sozial batzuetan			
				Beste batzuk (zehaztu)			

2. ERANSKINA _ Siglak eta laburdurak

ABA: Aukera berdintasuneko agentea

DB: Datu-baseak

TGPE: Tokiko garapen parte-hartzailearen estrategia

TE: Toki entitatea

TET: Tokiko ekintza taldea

IE: Ildo estrategikoa

E: Emakumeak

G: Gizonak

Kop: Kopurua

MAI.: Maila

P: Programa

Zuzend.: Zuzendaritzako langileak

Pl. Org: Plantilla organikoa

BATI: Bateragarritasunaren aldeko toki ituna

Ard.: Arduraduna

GB: Giza baliabideak

Idazk.: Idazkaritza

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Nafarroako Berdintasunerako Institutua
Instituto Navarro para la Igualdad